

3.4.4. UDAL-AREAK. ZIRKULAZIOA ETA MUGIKORTASUNA. ZIRKULAZIOA ETA MUGIKORTASUNA

SEMAFORO-INSTALAZIOA ETA CCTV KAMERAK

2017an, 552 semaforo konpondu ziren istripuen eta instalazioetako matxuren ondorioz (semaforoak, CCTV kamerak, zutoin pneumatikoak, zinemometroak eta neurgailuak). Otsailan eta martxoan egon zen intzidentzia gehien (68 eta 76, hurrenez hurren).

Jarduera nagusiak:

- CCTV kamerak ezartzea San Joanen apaiztegi zaharraren eraikinean.
- CCTV kamera ezartzea Milagrosako Gizarte Ekimeneko Komunitate Zentroa zaintzeko.
- CCTV kamera ezartzea udaletxeko ezkaratzean erakusgai dauden objektu historikoak zaintzeko.
- Semaforo-instalazioa Gipuzkoa etorbidearen eta Maiatzaren Plazako Amen kalearen arteko bidegurutzean.
- Semaforo-instalazioa Nafarroa etorbidearen eta Paulino Caballero kalearen arteko bidegurutzean.
- Semaforo-instalazioa Nazario Karrikiri kaleko oinezkoentzako pasabidean.
- Kondestablearen jauregiko barneko kamerak zirkulazio-sarera migratzea eta 3 kamera ezartzea Erroldako aretoan.

SARBIDE MURRIZTUKO EREMUKO IZAPIDEAK (ALDE ZAHARRA ATSEGINAGO EGITEA)

Hiriko Alde Zaharreko sarbideak matrikulak irakurriz kontrolatzeko ezarritako sistema (zutoin pneumatikoen orde) nabarmentzen da. Erabat eraginkorra izan dadin, kamerak ezarri ziren auzoko sarrera eta irteera guztietan. Kontrolgune hauek daude: Nagusia-Basotxo (sarrera-irteera), Nueva (sarrera), San Anton-Navas de Tolosa (irteera), Sarasate pasealekua-Navas de Tolosa (irteera), Sarasate pasealekua-San Ignazio (sarrera), Espoz y Mina (sarrera), Estafeta (sarrera), Labrit-Mesedeetakoa-Artzapezpikutza (sarrera), San Agustin (irteera), Karmen (sarrera-irteera), Santo Domingo (sarrera) eta Hezkuntzako aparkalekua (irteera).

Udalak Tok Tok izeneko aplikazioa ezarri zuen sarbide horiek erregistratzeko.

SARBIDE MURRIZTUKO EREMUKO IZAPIDEAK	2017
Izapide informatikoak	38.604
Sarbide iraunkorrerako baimena	13.172
Unean uneko eta aldi baterako sarbiderako baimena	10.425
Tratatutako erregistro-eskaerak	351
Izapidetutako zinegotzi-ebazpenak	165

ĀPARKATZE ARAUTUKO TXARTELAK ETA TAO PLAZAK

TAOk araututako aparkatze-tokien kopurua: 21.227. Horietatik, 10.463 urdinak dira, 171 gorriak eta 10.593 laranja.

2017an, 28.113 bizilagun-txartel eta 696 jarduera-txartel egin ziren.

SEKTOREA	Bizilagun-txartelak	Jarduera-txartelak
1 (Alde Zaharra)	2319	4
2 (Zabalgunea)	5072	47
3 (Milagrosa-Azpilagaña)	3902	44
4 (Iturrama)	6882	243
5 (Mendebaldea-Erripagaña-Etxabakoitz Iparraldea)	5144	171
6 Donibane	4793	187
GUZTIRA	28.113	696